


UDAL BATZORDEEN BERRI


LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2020/02/18)	ITSASO 2030 Azpitaldeetan garatutakoa	Azpitalde bakoitzean landutako edukia aktan jasoko da (aztergaiak, partaideak, garatutakoa eta hurrengorako zereginak) eta akta hauek batzorde bakoitzeko partaideekin partekatuko dira. Aste Santuaren ondoren (apirilaren bukaeran edo), lantalde bakoitzean egindako lanaren berri gainontzeko lantaldeetako kideekin ere partekatuko da.	Hiru lantaldeetako kideen bilerako data finkatu eta jakinarazpena bidali
	Herri Batzarra	Otsailaren 29an egingo den Herri Batzarreko deialdia prestatu da. Deialdi honen banaketa ostiralean, otsailak 21ean egingo da.	
	Martxoko eta apirileko plangintza eta egitaraua	Ekintza desberdinak antolatuko dira datozen bi hilabeteetarak: Martxoan-Emakumeen Nazioarteko eguna, Mendi irteera, Klimaren Astean tailerra. Apirilean- Iparragirrenen jaiotzaren 2. urteurrenaren ospakizuna, Mendi-irteera, Irakurle taldearen tertulia eta Auzolana	Berariazko jakinarazpena aldiari aldiari prestatu eta bidali
	Martxoak 8	Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko bi ekintza antolatuko dira: <i>"Feminismoaren bilakaera historian zehar"</i> erakusketa eta bazkaria. Erakusketaren azalpena jendaurrean zuzenean egingo da. Ondoren, Ostatuko sarreran geldituko da epe batez. Bazkaria ere Itsasoko Ostatuan izango da.	- Emakumeen Nazioarteko Egunari buruzko adierazpen instituzionalak dioena ezagutu - Erakusketa prestatu
(2020/03/03) Hurrengo saioa: (2020/03/17)	UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea)	UEMAko Mirenek mankomunitateari buruzko dokumentazioa eta zerbitzuen katalogoa ekarri digu. Euskararen normalizazioan motore papera hartzea eta euskararen aldeko hizkuntza politika egin eta eragitea da beraien helburua. Biztanleriaren %70etik gorako Udalerriekin lan egiten dute eta hainbat zerbitzu eskaintzen dizkiete mankomunitate barruko Udalei: tramiteak, diru-laguntza eskaerak, euskara baliabideak, diagnosiak eta plangintzak, ... Urtean ordaindu beharreko kuota 2422€-koa da.	- Gaia Udal Batzordean ere jorratu - Itsaso UEMAn sartu edo ez erabaki



	Martxoaren 8a	Emakume Langilearen Nazioarteko Egunerako plangintza osatu da. Jarri nahi den erakusketarako ormirudiak martxoaren 7an egingo den tailerrean burutuko direla adostu da. Eskualdeko manifestazioara joateko gonbidapena egitea ere proposatu da.	Jakinarazpena banatu Tailerrera materiala erosi
	Herri Batzarreko akta	Otsailaren 29ko Herri Batzarreko aktaren euskarazko bertsioa adostu da. Gaztelaniazko bertsioa idazten denean, banaketa egingo da.	

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2020/02/25)	Martxoko eta apirileko plangintza eta egitaraua	Martxoko eta apirileko plangintza osatu da eta banaketa Herri Batzarra ondoren egingo dela adostu da.	Jakinarazpena herrian banatu
Hurrengo saioa: 2020/03/10	Auzo konposta ondo egiteko kartelen eskaera	Auzo konpostan behar ez diren elementu batzuk agertu direnez, informazio panela jartzea erabaki da. Bertan Sasietako irudiak erabiliko direnez, jarri aurretik baimena eskatu behar zaie.	Sasietan adostasuna eskatu

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena 2020/03/04	S Lorentzoko bidea	Aurreko aktan jaso zen bidea zabaltzea komeni zela eskollera parean baina oraingo ez da beharrezko ikusi.	
Hurrengo saioa: (2020/03/18)	Irisgarritasun diru-laguntza ganbarako igoera	Plataformarengatik bakarrik lagundu dutenez (21.000€) eskailera ere sartu daitekeela uste denez, hurrengo deialdian eskaera osatua berriz eskatzea aztertuko da, dena sartuta, diru-laguntza handiagoa lortzeko.	
	Alegiako bulebarizazioa	2019ko deialdian ez denez sartu, Leader 2020 deialdira aurkeztuko da, behin Foru Aldundiak euri uren hoditeria zuzentzen duenean, bulebarizazio proiektua egokituta.	Gabiriako eta Itsasoko alkateak Foru Aldundiko Errepide zuzendariarekin bilera eskatuko dute, hoditeria bukatu ondoren, galtzada eurek asfaltatu dezaten



ITSASOKO

UDALA

(GIPUZKOA)

	Baseri bideak konpontzeko deialdia	Atinbarrena, Itsusturri-Mendeun eta Hariztizabal-Kamiño bideetan konponduko dira hainbat zati. Guztira 30.000€ inguruko kostua aurreikusten da, baina aurrekontu zehatzak egin behar dira.	Martxoaren 27 arteko epea dago aurkezteko
	Saneamendu proiektua Itsaso-Alegia	Aztertu dira egin dituzten alternatiba guztien balorazioak proiektu definitiboa aurkeztu aurretik. Alegazioak jartzeko epe barruan gaude.	